

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Taldekako esportazioetarako, nazioartekotze-zerbitzuetarako eta kanpoko sustapenerako laguntzak deitu dira

900.000 eurokoak dira, guztira

Astelehena, 2016.eko maiatzak 23

Garapen Ekonomikorako Departamentuak nazioartekotzearen babesean eta taldekako nazioartekotzean espezializatutako zerbitzuak kontratatzeke laguntzak deitu ditu; enpresa txiki eta ertainetarako dira, eta 400.000 nahiz 300.000 euro banatuko dira, hurrenez hurren, % 50 EGEF Europako funtsek finantzatuta. Eskaera epea ekainaren 20an amaituko da bi kasuetan.

Gainera, astearte honetatik aurrera, hilak 24, eta uztailaren 29ra, enpresa txiki eta ertainetarako laguntzen epea zabalik izango da, nazioartekotze-prozesuari ekingo diotenak edo hura finkatzea behar dutenak. Deialdi hori [Kanpo Merkataritzako Espainiako Institutuko ICEX-Next](#) programako diru-laguntzekin osagarria da, eta 200.000 euro banatuko dira.

Hiru deialdiak –gehi kanpoko merkataritzako langile teknikoen kontratazioa babesteko ebatzitako beste bat, 120.000 eurokoa– 2013-2016 epeko Nafarroako Nazioarteko Planaren barnean sartzen dira, eta haren barnean sartzen da enpresaren nazioartekotzea oinarrizko ardatz modura, ETEena bereziki, beraien ikusgaitasuna eta finkatzea ziurtatzeko, egungo egoeran, bereziki.

Bi urterako proiektuak

Taldekako nazioartekotzerako [deialdiak](#) (iragan ostiralean, hilak 20, eta izapidetzeko dagokion [fitxa](#)n argitaratu da) enpresen arteko lankidetzak sustatzen duten jarduerak diruz laguntzen ditu (merkataritza mailak elkarrekin sartzeko, hobekuntzak baterako negozio-prozesuetan edo proiektuak abian jartzea) kanpoko merkatuetara jotzeko orduan.

Taldea osatzen duen enpresa bakoitzak bere gastu guztien zenbatekoaren % 60 ere lor dezake eta bidaiatzeko poltsa bat, talde bakoitzak 60.000 euro jasoz gehienez (aurreko edizioan 47.000 eurokoa zen). Diruz lagundu daitezkeen gastu gehiago jasotzen dira (Nazioartekotze Plana prestatzeko gastua eransten zaie bidaiatzeko gastu tradizionalari, sustapen materialari, produktuen erakusketari...). Enpresaburu autonomoek ere laguntza hori eskuratu ahaliko dute. Talde batean gutxienez bi enpresa egon ebhar dira.

Nazioartekotzeari babesa ematen espezializatutako zerbitzuak kontratatzeke [deialdiak](#) (NAOn ostiralean ere argitaratua eta www.navarra.es [fitxa](#)n), ondasun edo zerbitzuen enpresa

esportatzaileak atzerriko merkatuetan finkatzea eta ezartzea bilatzen du. Horretarako, kasu askotan ezinbestekoa da helmugako zerbitzu espezializatuak kontratatzea. Hala, laguntza, aholkularitzako gastuak diruz laguntzen dira eta baita kanpoan ezartzeko beste batzuk ere (gastu guztien % 60raino gehienez), gehi bidaia-poltsa, proiektu bakoitzeko 20.000 euroekin (12.000 aurreko deialdian).

Bi deialdi horien berrikuntza nagusia proiektuak garatzeko epea zabaltzea izan da (urte batetik bira), eta ekimen bakoitzeko laguntzak handitzea. ETEetarako babes publikoa urte anitzekoa izango da (2016ko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31ra) enpresak nazioartekotzeko prozesuei hobeto egokitzeko, bi ekitalditan gutxienez indarrean daudenak.

Kanpoko merkataritza

Kanpoko merkataritzako [deialdia](#) astelehen honetan argitaratua da NAOn eta www.navarra.es [fitxa](#)n, 2016ko nazioartekotze-planean sartutako sustapen-ekintzegtiko gastuak ordaintzeko dira, esaterako: zabalkunde-sustapeneko materiala (katalogoa, liburuxkak, erakustokiak, webguneak...); publizitatea; azoketako erakusketari modura parte hartzea; prospekzioko bidaiak, komertzialak eta bezero izan daitezkeen bisitak; sustapeneko ekintzak; patente eta marken erregistroa; eta beste nazioartekotze-ekintza batzuk: Enpresa bati gehienez 10.000 euroko diru laguntza eman daiteke, % 50eko portzentajearekin prospekzio-bidaietarako eta merkataritza-bidaietarako edo % 30ekoarekin beste zenbait gastuetarako.